



ETXAUZKO GAZTELUA

◇ **ORDUTEGIA** ◇

10:00etatik 12:00etara eta
14:00etatik 17:30era.

Astelehenetan itxita,
uztailean, abuztuan eta
irailean izan ezik.



izan ezik



ETXAUZKO GAZTELUA

◇ ORDUTEGIA ◇

10:00etatik 12:00etara eta
14:00etatik 17:30era.

Astelehenetan itxita,
uztailean, abuztuan eta
irailean **izan ezik**.

izan ezik



Hona bide-seinale honen esanahia:

Sartzea debekatua dago motordun ibilgailuentzat, sidekarrik gabeko bi gurpildun motozikletentzat **izan ezik**.



izan ezik ≠ ezik

Sarritan, ordea, **ezik** erabiltzen dugu **izan ezik**-en ordez:

- * Guztiei esan nien, Aneri **ezik**.
- * Egunero irekitzen dugu, astelehenetan **ezik**.
- * ESNk **ezik**, gainerako sindikatu guztiak parte hartuko dute bilkuran.



izan ezik ≠ ezik

IZAN EZIK erabili behar da lehengo adibide guztietan:

- Guztiei esan nien, Aneri **izan ezik**.
- Egunero irekitzen dugu, astelehenetan **izan ezik**.
- ESNk **izan ezik**, gainerako sindikatu guztiek parte hartuko dute bilkuran.



Izan ere, autore gehienek **‘izen sintagma + izan ezik’** egitura erabili ohi dute:

- Bizitza **izan ezik**, dena galdu zuten.
- Inork ez daki, **Ainarak izan ezik**.
- Guztiek berba egin zuten, **Elisak izan ezik**.
- Guztiei esan nien, **Maiteri izan ezik**.
- Frantsesez, azentua beti azkeneko silabaren gainean dago, **azkeneko silabak e mutua agertzen duen kasuetan izan ezik**.



Izan ezik-en ezkerrean doan sintagmak dagokion kasu-marka hartu ohi du:

- *egun horr**etan** izan ezik*
- *Maite**ri** izan ezik*
- *iraile**an** izan ezik*



Salbuespena ergatiboa (NORK) da. Izan ere, **NORK** zein **NOR** kasuan joka daiteke *izan ezik*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa **NORK** kasuan joan.



*Denek dakite ene pena
denek dakite horren berri
denek dakite zer sentitzen den
denek dakite **zuk izan ezik**.*

(Xabier Montoia, "Zuk izan ezik", *Hemen*, 1997)



Horixe egingo zuen, **zu** izan ezik, beste edozeinek.



Hori guztia aintzat hartuta, gomendio hau eman zuen Euskaltzaindiak :

«Erabil bedi formula osoa, *izan ezik*, eta ez *ezik* bakarrik, eta aurreko sintagmak har beza dagokion kasu marka. Nolanahi ere, ergatiboaren kasuan (NORK) zilegi da absolutibo kasua (NOR) erabiltzea.»

(16. araua)



Izan ezik egitura horrek, zernahi gisaz, ez ditu mugatzen *ezik*-en beste erabilera batzuk. Izan ere, hainbat modutara erabili da *ezik* literatura-tradizioan. Hona egiturarik erabilienetarikoa batzuk:

EZIK = EZEAN

- Etorriko naiz, oker handiren bat gertatu *ezik*.
- Egunak ziren nazionalen hegazkinek orriak botatzen zituztela mehatxu larriekin, errenditu *ezik* goitik behera suntsituko zutela Bizkaia osoa.



...EZIK, ...ERE...

- Alaba **ezik**, ama ere etorriko da.
- Jan **ezik** edan ere gogotik egin zuten.

...EZ EZIK..., ...ERE...

- Amaia **ez ezik**, pozik joaten zen hara Miren **ere**.
- Gurean ere, kopia bat **ez ezik** bi badaude.
- Zer ikusi **ez ezik**, zer pentsatu **ere** izan zuten bidaiariek.

